



# TOLOSALDEA

2021-2022 ikasturtea



ESKOLAKO  
AGENDA  
2030



# BASOA






## EGUNON DENOI!

- Iritsi da ikasturte amaiera eta urtero bezala, Eskolako Agenda 2030 proiektuaren bidez aurten landutakoaren berri ematera gatoz.
- Aurtengoan, Garapen Iraunkorrerako 15. helburua (GIH) izan dugu abiapuntua: **LEHORREKO EKOSISTEMETAKO BIZIA**. Oso helburu zabala denez, zehazki, **BASO**Aren inguruan aritu gara lanean.



# BASOA







**Tolosa**  
**2021-2022 ikasturtea**

# Lantaldea

19. ikasturtea dugun  
honetan, Tolosako ikastetxe  
guztiak aritu gara  
elkarlanean, haur  
hezkuntzatik hasi eta lanbide  
heziketaraino.



- Don Bosco
- Herrikide ikastetxea
- Inmakulada ikastola
- Laskorain ikastola
- Orixe institutua
- Peñascal ikastetxea
- Samaniego ikastetxea
- Tolosaldea lanbide institutua

Osora 4.710 ikasle inguru. "Baina ez gu bakarrik,  
eskolako beste langile, irakasle eta gurasoek ere  
parte hartu dute"





# Egindako lana

- Udazkenean, gaia ezagutzeko motibazio jarduerak eta eskolako diagnostikoa burutu genituen.
- Udaberrian, herriko diagnostikoa egiteko lanen txanda iritsi da. BASOA gelan eta gelatik kanpo aztertzen aritu gara.

Orain aurkeztuko ditugu burututako jarduerak  
eta atera ditugun emaitzak



# HAUR HEZKUNTZA



Baso-eskolara joaten gara eta animaliak eta landareak ezagutzeko aukera daukagu.



- Euria egiten duenean ere gustora joaten gara.
- Elosegia Parkean batzuetan zaborra eta kristalak egoten dira.



Gabonetan basoen garrantzia eta gure jokaerek basoan dituzten ondorioak landu genituen.





# LEHEN HEZKUNTZA 1-2



Herriko gune berdeetan ibili ondoren, naturak gure bizitzan duen garrantziaz jabetu gara.

- Oso gustura egon gara.
- Faltan botatzen ditugu gauza gehiago egotea leku horretan: eskalatzeko lekuak, ezkutatzeko lekuak, sokak, txabolak egiteko egurra...






# LEHEN HEZKUNTZA 3-4



Herriko basoez gozatzeaz gain, bertan zuhaitzak eta bizidun ugari bizi dela konturatu gara.



- Horrelako leku asko dago herrian
- Gertu daude baina gutxitan joaten gara
- Lasai ibiltzen gara toki hauetan
- Toki batzuetan faltan bota dugu iturria eta bideak markatuta egotea



# LEHEN HEZKUNTZA 5-6




Natur gune batean egon ondoren ondorio hauek atera ditugu:

- Mendira joan nahi badugu, aukera asko ditugu gertu adibidez, Uzturre, Txindoki, Uzturre Txiki, zazpi bideak...
- Mendira familian joaten gara, batez ere uda garaian eta opor egunetan.
- Toki batzuetan zaborra aurkitu dugu.  
Oso gustura ibili gara!!





# Guk konpromiso batzuk hartu ditugu inguruko baso eta parkeak babesteko



Basoan ez dugu zaborrik botako eta lurrean ikusten duguna bildu egingo dugu.

Animaliak eta landareak errespetatuko ditugu: ez ditugu hartuko ezta apurtuko ere.

Antolatzen badira, basoko zabor bilketetan parte hartuko dugu.





# Eta udalari hau proposatu nahi diogu:



Herrian berdegune gehiago egokitzea  
haurrak eta gazteak egoteko,  
jolasteko...egoteko toki naturalak.

Baso eskola proiekturako aterpeguneak  
sortzea, euria egiten duenean motxilak  
uzteko eta arropaz aldatzeko.

Mendi bideak markatzea eta zaintzea





Lehengo basoak eta oraingoak konparatu ondoren, hau esango genuke:

- Lehen larre gehiago zegoen eta basoak anitzagoak ziren. Egun eraikuntzak nagusitu dira.
- Azken urteetan basoen parte txiki bat berreskuratu da. Hemengo espeziei lehentasuna ematen ari zaie.
- Batzuetan birlandaketak egin dira, besteetan basoak berreskuratzen utzi egin dira.



**\*\*Elosegi parkera joan gara eta zuhaitz mota ezberdinak daudela ikusi dugu baita zabor ugari ere.**

Galdetegi baten bidez, herritarrok basoekiko dugun ezagutza eta atxikimendua aztertu dugu.



- Inguruko mendi eta zuhaitzen izenak ezagutzen ditugu baina ez ditugu bereizten.
- Mendira joaten garenean ez gara fijatzen zer dagoen inguruan.
- 46 urteetatik gorakoek informazio gehiago menperatzen dute.
- Orokorrean gustuko dugu basoetan ibiltzea, baina gutxi joaten gara, ez dugu denborarik.
- Familiarekin goaz eta uda garaian batipat eta egun jakinetan, Abenduak 31 eta Urtarrilak 1 adibidez.





Eskualdeko basoen txostenak egin ditugu eta egoera nahiko honela definituko genuke:

- Lehengo lursailak orain edifizioak dira, hemendik urte batzuetara ingurune natural oso gutxi egongo direlaren sentsazioa daukagu.
- Baso eremua zabaldu egin da landa eremuak lantzen utzi zirelako eta basoak landatu ziren.
- Baso landatuak eta pribatuak baso naturalak eta publikoak baino kopuru handiagoan daude.
- Lehen sektoreak duen garrantzia azpimarratu nahi dugu, baita bertako basoen beharra biodibertsitatea mantentzeko.



# LANBIDE ESKOLAK



Tolosako Lanbide Hezkuntzako ikasleek, Amarotzeko basoan sasiak kendu dituzte eta ondoren bertako landaredia landatu dute.

1



2



ingurua eremu naturala eta  
atsegina  
bihurtu dadila!





# Hauek dira gure konpromisoak basoak babesteko:



✓ Udalak proposatzen dituen aktibitateetan parte hartzea.

✓ Mendiko fauna eta flora errespetatzea.

✓ Papera gutxiago erabiltzea.

✓ Mendira joaten garenean gure zaborra jasotzea, eta ingurunea garbi uztea. Eta bidean aurkitutakoa jasotzea.



# Eta hauek dira gure proposamenak

**ELOSEGI PARKEAN:**

- Zaborra sailkatzeko zabor ontzi egokiak jartzea.
- Iturria jartzea.

Ibaiaren garbiketa egiten den bezala, baso garbiketak antolatzea.

Mendi eremu pribatuak erosi basoak modu egokian kudeatzeko eta zaintzeko.

Hitzaldi eta mendi ekintzak antolatzea





Hau izan da ikasturte honek emandakoa. Datorrenean eta bi ikasturtez **7. helburuaren** inguruan arituko gara, denon artean Tolosa Garapen Jasangarrirako Helburuetan aurrera egin dezan laguntzen.



## Eskerrik asko zuen arretagatik!